



Euskararen Etxea

Euskararen Etxea berritzen

Euskararen Etxea Bilboko San Inazio auzoan dago, eta 2004an sortu zen **Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren** arteko lankidetzaren ondorioz.

Euskararen Etxeak erreferentzia izan nahi du euskal eragileentzat eta euskal jendartearentzat. Horretarako, hainbat zerbitzu eta bitarteko eskaintzen ditu, besteak beste, aretoen lagapena eta **Euskararen Interpretazio Zentroa**.

Egun, **Azkue Fundazioak** kudeatzen du, eta 15 urte eta gero, berritze prozesuan dago. Hala, berrikuntza prozesu horren 1. fasea burutu da, eta orain gizarteari aurkezteko unea iritsi da. Hauexek dira berritze prozesu horren **nobedade garrantzitsuenak**.

1

Ordutegia zabaldu egin da: 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskararen Etxeak ordutegi berria abiatu du: astelehenetik ostiralera, 8:00-20:00 eta larunbatetan, 10:00 – 14:00 eta 16:00 – 19:00.

Hortaz, euskal eragileen eskura dauden eta

2

doan uzten diren **Euskararen Etxeko aretoak** erabiltzeko eta **Euskararen Interpretazio Zentroa** bisitatzeko **eskaintza zabaldu** egin da.

3

Euskararen Interpretazio Zentroko Eskola Programaren **lantegia berritu da**; Azkue Fundazioak ondu du Ikastolen Elkartearekin lankidetzan. Lantegi hori euskararen erabileraren eta sustapenaren inguruan ardatzen da. LH3tik Batxilergorako ikasleentzat diseinatu da.

4

Webgune berria sareratu da Euskararen Etxeko zerbitzu guztiak kudeatzeko: www.euskararenetxea.eus. Orain, Euskararen Etxeko zerbitzu eta edukiak gizarteratzeko tresna propioa izango du Euskararen Etxeak. Codesyntax enpresak egin du.

5

Obrak ere burutuko dira Euskararen Etxearen instalazioak berritzeko asmoz. Lehenengo fasean, 0 solairua berritu da; tartean, komuna eta soinu-ekipamendu berria instalatu dira.

6

Azkue Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kirola eta Kultura Sailak **Hi(ZKI)bridoak** izeneko **zikloa** abiatuko du Euskararen Etxean, otsailetik maiatzera bitarte; kultur egitarau horrek literaturaren eta ahozko-tasunaren inguruan ardatzutako zuzeneko ekitaldiak biltzen ditu; *Anarik, Itxaro Bordak, Ibon RG-k eta Txakur Gorria Sormen Kolektiboak* parte hartuko dute, besteak beste. Ekimenean hainbat eragilek parte hartu dute: *Booktegi, Lanku* eta *Loraldia*.

1

Ordutegi berria

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, **Euskararen Etxeak ordutegi berria abiatu du:**

astelehenetik ostiralera: 8:00-20:00
larunbatetan: 10:00 – 14:00 eta
16:00 – 19:00.

Hala, Euskararen Etxeko aretoak erabili nahi dituen edo Euskararen Interpretazio Zentroa bisitatu nahi dutenek aukera zabalagoa izango dute horretarako.

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
8:00							
9:00							
10:00							
11:00							
12:00							
13:00							
14:00							
15:00							
16:00							
17:00							
18:00							
19:00							
20:00							

2

Aretoak eskuragarri

Euskararen Etxeak euskararen sustapen eta hedapenean eragitea du helburu. Hori dela eta, bertako espazioak erabilgarri daude euskara helburu edo misio duten entitate eta elkarteentzat. **Espazio horiek aurkezpen, prestakuntza edota bileretarako baliatu daitezke.**

Honakoa da ordutegia:

astelehenetik ostiralera: 8:00-20:00

larunbatetan: 10:00 – 14:00 eta

16:00 – 19:00.

Igande eta jai egunetan itxita.

Espazio guztien erabilera **DOAKOA** da.

Nork erreserba dezake espazioa Euskararen Etxean?

- Euskararen alde lanean ari den edozein entitate edo elkarte.
- Euskara bere jardunaren helburu edo misio nagusi duen edozein entitate edo elkarte.

Hauexek dira espazio horien ezaugarriak:

BERBA aretoa

80 lagun

- **7 Mahai**
- **Aulkiak**
- **Proiektorea**
- **Ordenagailu eramangarria**
(erreserba egiterakoan eskatu behar da)
- **Wifi sarea.**

MINTZO aretoa

25 lagun

- **4 Mahai**
- **Aulkiak**
- **Proiektorea**
- **Ordenagailu eramangarria**
(erreserba egiterakoan eskatu behar da)
- **Wifi sarea.**

HITZ aretoa

80 lagun

- **4 Mahai**
- **Aulkiak**
- **Arbel digitala**
- **Proiektorea**
- **Ordenagailu eramangarria**
(erreserba egiterakoan eskatu behar da)
- **Wifi sarea.**

ELE aretoa

25 lagun

- **Arbel digitla**
- **Mahaiko 14 ordenagailu internet konexioarekin.**
- **Aulkiak**
- **Proiektorea**
- **Ordenagailu eramangarria**
(erreserba egiterakoan eskatu behar da)
- **Wifi sarea.**

3

Eskola Programako lantegia berritu da ikastetxe eta ikasleentzat

Euskararen Interpretazio Zentroko Eskola Programaren baitan egiten den tailerra berritu egin da; **Azkue Fundazioak** ondu du **Ikastolen Elkartearekin** lankidetzan.

Egitasmo berri hau euskararen erabileraren eta sustapenaren inguruan ardatzen da, eta hiru ildotan antolatzen da:

Ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko proiektua
(**LH3**, **LH4** eta **LH5** mailetako ikasleentzat)

Zenbat dakit euskaraz eta euskal kulturaz? Kahoot! Lehiaketa
(**LH6**, **DBH1** eta **DBH2** mailetako ikasleentzat)

Herrigintzatik euskararen erabilera sustatzeko proiektua
(**DBH3**, **DBH4** eta **Batxilergoa** mailetako ikasleentzat)

2019an, hain zuzen, 58 ikastetxek bisitatu zuten Euskararen Etxeko Euskararen Interpretazio Zentroa: 53 eskola Bizkaikoak izan ziren, 4 Gipuzkoak eta azkenik, 1 Arabakoa. Guztira, **4.000 ikasle inguru** etorri ziren.

Halaber, **25 taldek bisitatu zuten interpretazio zentroa, guztira, 1.000 lagun inguru.** Taldeok hainbat jatorritakoak izan dira, tartean, **Sestaoko Nagusien Elkarteak, AVIFES Senideen eta Gaixotasun Mentalaren Bizkaiko Elkarteak, University of Amsterdam edo AEBetako OAT turista-taldeak.** Horrekin batera, ehunka bisitari hurbildu dira euskararen nondik norakoen berri izatera.

4

Webgune berria

Webgune berria sareratu da Euskararen Etxeko zerbitzu guztiak kudeatzeko: www.euskararenetxea.eus. Orain, Euskararen Etxeak bere zerbitzu eta edukiak gizarteratzeko tresna propioa izango du; esaterako, Euskaren Interpretazio Zentroko bisitak eta aretoen eskaerak webgune berriaren bidez egingo dira.

Codesyntax enpresak egin du. Estetika erakargarria eta koloretsua du, eta bere helburua da Euskararen Etxeko baliabideak ahalik eta modu errazenean jartzea euskal eragileen, ikastetxeen eta biztanleen esku-ra.

5

Instalazio berriak Euskararen Etxean

Obrak ere burutuko dira Euskararen Etxearen instalazioak berritzeko asmoz. Lehenengo fasean, 0 solairua berritu da; tartean, Euskararen Etxeko areto nagusia den *Berba* aretoa lehen irekia zen eta zuen ataririk, orain berriz, gune itxi bat da erabiltzaileen mesedetan; **soinu-ekipamendu berria** ere instalatu da espazio horretan. **Komun egokitua ere jarri da beheko solairuan**; lehen bigarren solairura igo beharra zegoen.

6

Hi(ZKI)bridoak Literatura Mutanteak kultur egitaraua

Azkue Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kirola eta Kultura Sailak **Hi(ZKI)bridoak izeneko zikloa abiatuko du Euskararen Etxean, otsailetik maiatzera bitarte**; kultur egitarau horrek literaturaren eta ahozkotasunaren inguruan ardaztutako zuzeneko ekitaldiak biltzen ditu; **Anarik, Itxaro Bordak, Ibon RG-k** eta **Txakur Gorria** Sormen Kolektiboak parte hartuko dute, besteak beste. Ekimenean hainbat eragilek parte hartu dute: **Booktegi, Lanku** eta **Loraldia**.

Hi(zki) Bri Doak

Literatura mutanteak

Egitaraua

Mutazioak kaltegarriak izan daitezke izakiontzat, baina ezinbestekoak dira gure existentziarako. Mutaziorik gabe ez legoke aldaketarik, eta aldaketarik gabe ez dugu eboluzionatzen. Hi(zki)bridoak literatura-
ren eta ahozotasunaren arteko mutazioak dira. Letrak, soinuak, bertsoak eta irudiak eraldatzen dituzten ekitaldiak. Emaizta **literatura mutanteak** dira, zentzu zabalenean.

Buztinezko etorkizuna

Itxaro Borda irakurketan, Ibon RG musikan Booktegiarekin lankidetzan

-

Otsailak 27 || 19:30ean.

Kolapsologoek aipatzen duten munduaren leherketa hurbila dauka ardatz Itxaro Borden idazkiak. Kutsadura, gaixotasunak, errepresio soziala, naturaren menderaketa osoa: gure altzairuzko, beirazko eta burdinazko planeta zati honen etorkizuna buztinezkoak baizik ez balitz funtsean? Idazlearen **ahots apokaliptikoari** sakontasuna ematen dio Ibon RG musikari ospetsuaren Korg sintetizadorearen auhen elektronikoko kasik humanoak.

Muga

Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen liburuan oinarritutako eta Gaztelupeko Hotsak diskoe-txeak argitaratutako egitasmoa

Loraldiarekin lankidetzan

-

Martxoaren 25ean || 20:30ean.

Xabier Montoiaren *Anfetamiña* liburutik abiatzen da Muga. Poesia, rock musika eta ikus-entzunezkoak batzen ditu. Xabier Montoiaren lehen poema liburua izan zen *Anfetamiña*, eta Alberto Gonzalez musikariak (Aterkings edo 6nemen9) kantu bihurtu du, Iñigo Romera (Cancer Moon, El Inquilino Comunista), Iñigo Eguillor (Gringo, Trampas) eta Itziar Beristain musikarien laguntzaz. J.A. Goñi Areta *Juxe* argazkilariren irudiekin jantziko dute saioa. **David Bowiek ilea moztu zuen egunean hasten da historia...**

Bertso saio literarioa

Mari Luz Esteban, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza

Lankurekin lankidetzan

-

Apirilaren 23an || 19:30ean.

Idazle batek kantuan jarriko ditu bi bertsolari. Bat-batean arituko dira kasuan-kasuko bertsolariak. Idazleek pasarte literarioak irakurri ondoren, hari loturiko gaiak proposatuko dizkiete bertsolariari. Hiru autoreren arteko elkarlana izango da: hiru ahots elkarlanean. Erregistro guztiak lantzeko ahalbidea ematen du. Bertso-saio baten ohiko moldeak hautsi gabe, literaturaz gozatzeko aukera eskainiko da. **Ahots mutazioak.**

Habiak

Anariren lan homonimoan oinarritutako arte erakusketa kolektiboa, eta Anari taldeak zuzeneko

Booktegirekin lankidetzan

-

Maiatzaren 15ean || 19:30ean

Musika eta artea lotzen dituen ekitaldia da, zeina Anariren *Habiak* diskoaren inguruan ardatzen den: erakusketa kolektiboa izango da eta diskoan bildutako hamabi kantuen interpretazio plastikoak bilduko ditu –maiatzaren 30era arte izango da ikusgai-. Anari taldeak *Habiak* joko du zuzenean; **denbora zeharkatuko duten soinuak.** Booktegik, halaber, erakusketari buruzko katalogo-argitalpena plazaratuko du bere plataforma digitalean.

Orainmenean

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa

Lankurekin lankidetzan

-

Maiatzaren 28an || 19:30ean

Bertsolaritzan beti kontatu izan da gizonen bertsolarien historia. Hala ere, iritsi zaizkigun izen handi horien atzean arakatzeko, hainbat eta hainbat plaza-andreren arrastoak agertzen dira. Horregatik, Txakur Gorria Sormen Kolektiboak ahalegina egin du bertsolaritzaren hastapenetatik gaur arteko historia hori zalantzan jartzeko eta **bertsolaritzaren genealogia feminista posible bat** berridazteko, ikusezin izandakoak ikusaraziz. Emakumez osatutako bertso-saio honetan, bertsolariak **genealogia horren parte diren datuak eta gertaerak izango dituzte katurako abiapuntu.** Gainera, berriro datzitako historiaren mugari ezberdinetan oinarritutako **irudiak egongo dira erakusgai.**